




Bizkaitarrei
Bizkaieraz




www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Andres Mañarikua eta Nuere



TXOMIN AGIRRE
eta Mariano Ibarguengoitia



URTEROKO BATZAR NAGUSIA



Loteri kontuak

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2015-2016 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erobatan lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkiña : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

ANDRES MAÑARIKUA ETA NUERE


Bizkaiko Seme Bikaiña, Adrian Zelaia Ibarren Itzaldia

I. Bizkaiko Foru Aldundiak, 1985eko Azaroaren 26eko datan artutako Gobernu Kontseiluaren erabakiz ao batez Andres Eliseo de Mañarikua eta Neure Jaunari "**Bizkaiko Seme bikaiña**" titulua emotea erabaki eben; deitura au gaztelaniera ondo itzultzerik ez dagoenez obe dogu gure antziñako izkuntzan, daukan barruko esangura osoaz gor-detzea.

Barri onek poztasun andia emon dogu Andres Jaunaren Lagunoi, omenaldi au biziki eskertzen dogularik, titulu asko dirala bide, ondo merezia dauala argi ikusten baidogu.

Ala bere, gure Aldundiaren erabakian, gizon bakar baten merezimenduak saritzeko go-go baño zerbait geiago dagoela antzementen dot. Nire eritziz, batez bere, zerbitzua egin nai jako gizarteari, geiago oraindik, Bizkai osoari, mundu guztiaren aurrean, lan serio eta kontzeintziatsua, erriari eskaiñitako zerbitzu desinteresatua eta ikaskuntza, ikerkuntza zein guztien onuratan erabillitako bizitza osoa nabarmendu eta goraipatu nai diralarik.

Arratsalde bakarreko sari iragankor ugaritsu jasoten daben oraingo idoloak, kirolariak edo ikuskizunetako protagonis-



tak baiño ez dagozela dirudien oraingo mundu onetan, gure Aldundiak, arreta-dei baten bidez, gogoak iarrausi nai izan dogu guri onelako zerbait gogora ekarri naiez, ots, gure oizko bizitzatik kanpo bere, ba dagoela Zientziak eta Arteak landuz eguneroko lan serio eta zeatza burutzu, **Bizkaiaren eta Euskadiren alde** aalegin andiz lan egiten dauan gizonik, Unibertsitatetan, biblioteketan, taillerretan eta lantegietan. Antza danez, Aldundiak jarraiko au nai dogu esan, ots, Bizkaiak iñoiz baiño geiago bear dabezala gizon onek larri gorrikotzat jotzen diran oraingo uneotan eta bearrezkoa dala illuntasunean baztertu bearrean agerira ateratzea, guztiok eta bereziki gazteek eredutzat artu eta aren jokabideei jarrai dagiogun.

Orrela egitean, gure Aldundiak, politika on bat erabilliz, iñoiz baztertu bear ez dan eziketalanari emoten dautso asiera, erria goiko elburuetara bideratzeko lana, une berean, politika eta eziketa dalakin eta gizerteko erakunde guztiekin partaidetzan jokatuz burua izan bear dualako.

Nik, bakarrik partzialki etendako eziketarako bokazioa daukadanez, ez dozue arritu bear nire leenengo itzak Bizkaiko Foru Aldundiari, eredu gisa emoten dogun

(1) *Estalville = encubridor, alcabuete.*

urrats onegatik, euskaldunontzat ain maitegarria dan leku onetan biltzen gaituen erabakiagatik, zorionak emoteko erabiltzen badodaz.

II. Goraipamen au, ain zuzen bere, Andres Mañarikua Jaunari emotean, Aldundiak azertu barria eduki, dau gure Foru Aldundiak aintziñako garaietan, dirala eun urte baiño leenago, izandako azertuak gogora ekartzen doguzalarik. Azertu nabaria, bai, apalki aditzera emoten saiatzen banaiz bere, Andres Jaunaren bizitzan eta lanean "**benetan Bizkaiko seme bikaiña**" izendatua izateko alde eder ugari aurkitzen dalako.

Benetan, euki ere kontraesan andiak daukaz Lurralde txikia eta menditsua, ezea eta odeitsua dan Bizkaia onek, batzutan aurpegi zakarra erakutsi eta beste batzutan poz-jarriotan leertzen dan onek, Pelay Orozko-k gure Bizkaia "maitea" deitutako arako "Erri Zail" aren barruan oso-osorik sar daitekeen lurralde problematiko onek. Egia esan, aurrean doguz egungo garai barrietako arrisku batzuk, ale zelan, droga, alkoola, langabezia eta aintziñako oituren ondaketa, baiña, era berean, egi utsa da, baita bere, Bizkaia dala etorkizuneko gure egitamurik zoragarriena. Egitamu onek –ala nai

eta aurrikusten dogu– barriro bere industria gartu, energi-iturriak ugaritu, tekniken aurrerakuntza bizia artu, gure kulturaren maña gora jaso eta gure alkarren arteko bizitza obetuko dogu. Amets onetan siñesten ez dauanak ezkorra izateaz gaiñera, galgan kateatua dauka biotza. Baiña, au dogu, baita bere, guztiok bertan tokia izatea albideratuko dauan alkartako bizimodura eroango gaitzuzten bideak adierazteko pentsaera sakon, abstraktu eta espekulatiboa daukien gizonen bearra daben Bizkaia.

Bizkaia, Euskadi osoak lez, eta agian bizitasun nabariagoz, bizi dauz kezkok; ori dala eta, bear bada, gure Jaurerria, Euskalerra osoa zelakoa izango dan etorkizunean isladatzen daun arragoa edo da.

Guzti ori ale dalarik, ez dogu arridurarik sortu bear gure "**Seme Bikaiña**" letragizona, au da, gure erriari berari buruzko ausnarketari ekin dautson gizona izateak. Andres Jauna, bear bada, iñor baiño geiago urbildu jako, gure etorkizunerako garrantzi andikoa dan onako galdera oni: –Zer da Bizkaia eta zer gara bizkaitarrok etorkizunerako egitamu gisa, eusko eta gizaegintza bateratuarentzako ekarpen gisa?

Andrés E. de Mañaricúa eta Nuere abadea eta irakaslea gogoan, In Memoriam jarduna: "Euskal Herriari buruzko ikerketa historikoak, iragana eta etorkizuna"



Andres Jauna, onako aurkezpenean aditzera emon nai geinkezan jokaeraz urbildu izan da gai onetara. Lendabizi, zuzentasunari buruz dauan zentzu zorrotza. Gizon artega, "ez bakarrik gizon zintzo, baña zuzen zuzena", iñoiz iñoren aurrean burua makurtu ez dauan gizona. Ezin dezaket antz, Bizkaiko Gobernu Zibileko bulego aurrean, Goti Jauna, Andres Jauna eta irurok I. Euskal Antropologia Asterako lortzeko ain zailla zan Gobernadorearen baimena itxaroten gagozela berak zuen irudia.

Arteztasun au, egia bakarrik interesatzen jakon zientzigo nekaeziña lagun dauala dabil. Andres Jaunak ez dau iñoiz argudiorik faltsukeriaz bortxatuko, ez dau iñoiz bear adiñeko segurtasunik gabe ondoriorik ezarriko.

III. Bizitz-egitamu bat?

1935. urteán Gasteizen Eskarzaga-ri egiñiko omenaldi gisa argitaratutako liburuan, oraindik apaiz egin gabe zan ikasle gazte batek, bere leenengo gaia argitaratu eban. Izenburua, beraren bizitza osoko kezka nagusi izango zanaren aurrikuspena edo zan: "Euskal demokrazia".



Egileak, gure Andres jaunak, ikerketa bera "asi-berriaren lan apala" zelan diñoen. Irakurtzea gomendatzen dautzuet, lan

apala ez izateaz gaiñera historialariaren etorkizuna zuzenki aditzera. emoten baitu eta, orretaz gaiñera, bere bizitzan izango diran bi jokabideok erakusten: alde batetik, Euskal Erria beronen zabaltasun osoan eta, bestetik, demokrazia, ain zuzen, esanairik sakonenaz eta umanistenaz eta, bide batez, euskaldunenaz ulertua dan demokrazia.

Gaztaroko lan onetan, Andres jaunak, Euskadi osoan zearko aintziñako euskal erakundeak adierazten dautsoguz, naiz eta Lapurdik, Gipuzkoak eta Bizkaiak berezkoak dabezanak nabarmenago aurkeztu. Errialde orreek baitira -diño- euskal antolaketa-era garbien Jagon dabenak. Andres jaunak, Bizkaia sakonki ikertu dauan bizkaitarra izanik, berau ez dala Euskadi sakon-sakonetik sentitzearekin bateraeziña erakusten dautsogu.

Eta demokraziari buruz azterketa zorrotza egiñik, edozein demokrazia motatan ezinbesteko bi ezaugarri dagozela diñosku Andres Jaunak, ots, erri ordezkartza eta ordenu poli-

N^o 160
 Mananica Nueva
 Andres Jose Maria
 Confirmando en esta
 parroquia el 2 de fe-
 brero de 1912.
 Acunaga
 Recibió el S. Subdelema
 do el 21 de diciembre de
 1935, según avisó el Sr. J. P.
 Acunaga

En la villa de Fillos, provincia de Vizcaya, San Pedro de Vitoria, a diez y nueve de Noviembre
 de mil novecientos once: Yo el infrascripto párroco D. José Vicente de Recaschea, con autori-
 zación expresa del Cura Económico que también suscribe, bauticé solemnemente un niño
 a quien puse por nombre Andrés, Elvira, Maria, legítimo de D. Elises de Manica
 Nueva, jefe de estación, y de D^a esposa Agustina de Navre, natural de Durango,
 Vizcaya, vecinos de esta villa, feligreses de esta parroquia. Nació según declaración
 del padre, a las once de la noche de este día del comento en la calle Marista
 de San Nicolás número 4.^o Con sus abuelos paternos D^{os} Ignacio de Ma-
 nica Nueva y Mauricio, Benigno de Recaschea y María natural de Durango,
 y los abuelos D^{os} Pedro de Navre y Vitoria de Carolina de Jartana audia y
Isabel de Recaschea natural de Durango, quienes padrenos D^{os} Juan María de Jartana
 natural de Durango, Elvira de María de Carolina natural de Durango,
 a quienes asiste el parentesco espiritual y obligación que contraen cuando haci-
 ga Vicente de Vitoria y José de Recaschea natural de Amor, villa de Carmona, Vizcaya,
 sacristanes, vicario de Fillos. Y por ser días festivos fecha así supra. Intercedido
 = Maria = valga
 Yo el Sr. Párroco José V. de Recaschea

tikoaren gaiñetik dan gizarte eta lege ordenuaren nagusitasuna.

Deguit-i jarraituz bereizketa egiten dau subiranotasun politikoaren eta subiranotasun juridikoaren artean. Zuzenbidea, Estatuak sortua bada, –diño– arek indarpean ezarrirako arau juridikoa baiño besterik ez badago, Estatua ezin da Zuzenbidearen menpe egon edo beronek mugatua izan. Au onartezina da. Zuzenbidea, Estatua baiño aurreragokoa eta goragokoa da; askatasun osoz eratu eta ezartzen jako Estatuari. Estatutik kanpoko gizarte-lankidetzaren emoitza da; gizarteak gorpuztua izan oi da; estatuak, legeak egiterakoan, ezin dau berezko eskubide orren aurka jokatu.

Eta Joaquin Costarekin bat etorritz, zera gaiñeratzten eban: Estatua, legeak egiterakoan, bi egoratan aurki daiteke: legegilea, legetzat emondako proposamen orretan, oitura izan ez arren, geien-goaren uste edo naia danaren adierazle edo eta pareko dan eritziaren egoera naasiaren biltzaille eta gorpuztaille izan danean, erriak bere asmoen adierazgarritzat artu eta bere egiten dau, "**et lex facta est**". Legegilleak, indarra erabilliz, subiranotasuna dauanari

eskuduntza lapurtu era orri "menpekota" eta bere buruari "agintaria" deituz bere sorketa subjeti-

boak ezarri nai dautsozanean, atzekoz jartzen dau zereginak, gizartearen bizitzako berezko ordenua naastuz eta indarkeriazko egintza egiñez.

Mañarikua gazteak, euskaldunon leenaldian burutuaz baliatuz, aditzera emon nai ebana, gizartearen estatua gaitetik, legeria politikareñ gaitetik kontrajarri bearra dagoela izan zan. Eta atsegiñez barridazten dauz Costaren itzak, onek Bizkaiko antolaketa oso kasuterezitza aitortzen baitu.

Guzti orreiek, Euskal Erriak oituraren alde dauan obespena balioztatzea aalbideratuko diño, obespen orrek arrazonatzen baitu 1696.ean Gipuzkoako foruari jarri jakon sarrera –artikulu onek barridazten baitu onako au baieztatuz; "bertoko errietan eraginkorragoa da oituraren konbentzimendu bigun eta leuna legeen meatxu gogoera baiño eta denboraldi luzean zear oitura biurtu eta praktikak kontserbatu dabezanak esperientziak askoz ere errazago dabela erri osoaren aldeko onespina adierazten daua".

Nire ustez lan onetan ageri taiuturik, Andres Jau-naren geroragoko norabidea. Beraren elburu nagusi Bizkaia eta Euskalerrria dira; beraren ideologia, demokrazia eta beraren ekarpena, metodo historiko eta juridikoaren bidez etorriko da.

IV. 1935.eko artikulua ondoz ondoz urteak, garai neketsuak izan ziran. Andres Mañarikua Jauna apaiz egiña izan eta piskat geroxeago Erromako Unibertsitate Gregorianora bidalia izan zan. Eta emen, gure artean anaiarteko guda asi zan eta armen zarata trumoitsua jasan ezinik goganen-munduan isiltasuna egin zan.

Aurkezpen au agindu zenidatenetik, or-omenka eritziak bilduz, beraren bizitzako une ori osotu nairik ibilli naz, Madriden. Berregin nai dodazan Erromako egun aletaz entzun daukadazan azalpen ugariez baliatzen nazelarik; egun arek, zalantzarik gabe, oso emonkorrak izan ziran, ez bakarrik onuraz betetako ikasurteen zioz, baizik eta bizi bear izan ebezan gertaeretan jaso eban esperientzi aberasgarriaren zioz.

An ikasketa juridikoak sakondu ebazan, Zuzenbide Kanonikoaz gaiñera, Erromatarren Zuzenbidearen eskemak aztertzen saiatuz, berau baita batzutan "**ratio juris**" modura artutako Zuzenbidea, ots, arrazonamendu utsezko sorkuntza lez, baiña, era berean, Zuzenbide erritarra ere bazan pretorrek egunerik egunera bildu eta pillatu ondoren beraren "Ediktu"-an aditzera emondako esperientzietan oiñarritzen zalarik, batez ere "**jus gentium**" ez egiñiko formulazioan.

Oiñarrizko ikasketa eurekin batera, Pio XI.aren pontifizego-aldian, beraren eriotzean eta Pio XII.aren asierako garaian urbiletik bizi izan ebazan Erromako kuriaren aulezia eta aunditasuna.

Beraren ikasketak, doktorego-tesiaz ("Esklabuen arteko ezkontza") amaitu ebazan "**Summa cum laude**" kalifikazioa eta Aita Santuaren **Urrezko Domina** lortuz. Tesi onek, Andres Jaunak dauan gizartearekiko ardura eta beartsu zein baztertuenganako joera nabarmentzen dabezala uste dot.

V. Tresna onek eukizalarik, prestua zengozan Euskal Erriari zuzenki eragina egiten dautsoen juridiko eta historikoei aurpegia emoteko. Gaztaroko lan artan, leen aldiz aditzera emondako arako eritziak eldu eta aberasten joan ziran urteetan aurrera. Bear bada, adituago dan adierazleren batek, aren lanaren beste alde batzuk nabarmendu aal izango leiteke, baiña nik neure ikuspegiz onakoak baloratu bear dodazela uste dot:

Leena, Kristautasuna Euskal Errian jartzeari buruzko ikerketari dagokio. Andres jaunak, argudio sendoez, kristautasuna oso goiz sortu zala **Euskal Errian**, Gipuzkoan eta Bizkaiko itsas-errietan ere bai, defendatu izan dau. Tesi au, dagoeneko "Santa Maria de Begoña en la Historia espiritual de Vizcaya" (1950) deituriko beraren lan garrantzitsuan ageri da, lan ori zaindariari egiñiko omenaldia izatez gaiñera Bizkaiko historian-zearko erlijiozko bizitzari buruzko ikerketa osoa dalarik. Argudio oriek leenean irauten dabe eta garatzen dira geroagoko beste lan batzutan, bateren bat oraintsukoa dalarik.

Aipatu nai dodan bigarren gaia Bizkaiko Jaurerriaren jatorriei buruzkoa da. Ageri bere, jatorri orrek ainbat illuntasunez inguratuta ageri dira. Ain zuzen, ainbeste ipuin-kontakizunen artean, batzutan gure arbasoak Paradisuko Lurretan kokatuz zein Kristo etorri baiño leenago gurutzea gurtzen jarriz edo eta Bizkaiko leenengo Jauna izan zan Jaun Zuriaren irudia illuntasunen artea zirriborratuz, aintziñako his-



torialariek gure leenaren ikuspegi maitagarri eta zoriontsua sortu eben, xaloki ontasun ugari ikusten ebezalarik; tentaldi au ez dala falta jakintsuagotzat jotzen euren Cid Campeador, euren Roldan edo eta gorputz-argiz eldutako Zaragozako Ama Birjina. Eta orren oiñarrietan seguraski, giza-patologiak argituak izan bearke dabenen kontraekintza ikusi izan dogu, zeinek euskal historialarjei –ez bakarrik historia intuikorra egiten daberen antziñako historialariei, baizik eta zorionez eduki izan doguzan eta irudimenezko lan orreetan erori izan ez diran historialari serioagoei– mitiko eta mitoen sortzaille eta edatzaile deitzen bait dautze. Orrela, Bizkai-ko eta Euskal Erriko anti-historia egin nai izan da, gure Erriaren nortasun historikoa osotzen dauan guztia lurrera botatzen dalarik. Bizkaia, Arabako Konterriari lotua dalarik, Gaztelako adar egiten da, erakunde tradizionalen –bereziki kaparetasuna eta foru pasea– iraupena ezeztatuz zein gutxienezko egoerara murriztatuz. Tradiziozko Bizkaia, kulturarik bageko basatien gordeleku lez aurkezten da.

Bearrezkoa zan norbaitek, lan serioa egin, zientzia metodologia erabilli eta iñoiz egia-tik aldendu gabe dagozan erizpide guztiak erabilli eta ordenatuz zenbait illungune eta, batez bere, gure historiaren jatorria argitzea.

Bide onetan egin dau nire ustez, Andres Jaunak lanik premiazoena bere jarraitzaillleei bideak zabaltzen dabezanarik eta, batez bere, Bizkaiaren jatorriari buruzko ikerketetan VII I.etik XI.era arteko mendeei buruzko beraren lana, ots, kondaira dagokion lekuan kokatzea edo, esate baterako, Momo Konde misterio-tsuaz jakin aal dana bezalako arazoak argitzea edo eta historikoki agiri bidez ezagutuak diran leen Jaunen bizitzak eta ekintzak azaltzea, Labayruren ondoren, gure historiari egiñiko ekarpenaik oberena dalarik.

Guzti onek, jaun-andreok, ez dira mitoak historia utsa baizik eta beraren argitasunaren bidez azaltzen da gure nortasun berezia; zer esanik ez, Paradisuko Lurrekin zer ikusirik ez daukana, baiña, beste euskal lurralde batzurenkin berdintasunak ezartzea aalbideratzen da-

belarik izaera ezberdina, berau ezin deiarik parekatu jauregietako aginpideekin ez eta Gaztelako errege lurrekin, argi eta garbi markatzen daberen berezgarri ezberdinak daukana, Au da Bizkaia, esan deikegu ikerlan oneitaz baliatuz, Aroko kontearen aurrean XI.mende-
dean lez.

Ikerkuntza alor onetan, badago Andres jaunak landutako beste sail bat bere, ots, beraren ikerketa historiografikoei dagokiena. Gaur egun, oso zail egiten da, "Historiografia de Vizcaya" Andres jaunaren gorenengo lana (1971) erabilli bage, Bizkaiaren oraingo izaeraren eta leenagokoaren ikerkuntzan urratsik emotea.



Garai ezberdiñetako liburuak, gutunak, argibideak dagoz baiña nola ezagutu, ordenatu eta baloratu? Mañari-kuaren ikerketak, Garcia Salazarretik Labayru arte, iturri ezberdinak xeatzen dauz, areei buruzko argitasun zeatza emoten dogularik eta, batez bere, beraren ezaugarri diran oreka eta objetibotasunaz baloratzen dabezalarik. Ez da naiko testua erabiltzea; orretaz gaiñera ezinbestekoa da barri historikoan asmo kritiko-z barrusartzea; eta ez dago, zein puntutaraño dan fidagarria testua eta zeintzu diran beraren aalgarrizko mugak esaten dogunean, Andres jaunari jarraitzea baiño bide oberik.

VI. Astiro aztertu nai dot, baita bere, Andres Mañarikua jaunak Unibertsitate barruan eta unibertsitateko irakasle gisa egiñiko lana.

Izkuntza izan da beti beraren kezkarik andienetarikoa, idatzitako ainbat liburu eta liburuskatan azaltzen dan lez. Orri, beraren ikertzaille gisako jakingura geitzen badautsogu, argi geratuko da Unibertsitatean balio andiko eginbearra burutzeraz deitua zala. Erromatik etorri eta zerbait geroxeago sartu zan Deustuko Unibertsitatean eta urte askotan zear Erromatarren Zuzenbide eta Nazioarteko Zuzenbideari buruzko ikasgaiak azaltzen iardun eban

Asierako ikasgai onen oroitzapen ezin ohea dabe orduko ikasleek, areetariko batek, dirala egun gitxi, arrazoi osoz Nazioarteko Zuzenbidearen sortzailletzat edukia dan Francisco de Vitoriar buruzko eskolez egiten eustan berba. Asierako garai onetan, Zientzia Politiko eta Moralei buruzko Mintegia sortu eban, non gaur egun Erri au bideratzen ari diranetariko askok eguneroko gai juridikoak ikasten asi bait ziran.

Geroago, Zuzenbidearen Historiari buruzko ikastaroak emoten asi zan eta azken urteetan Letretako Fakultateko Historia Saillean sartu zan Euskal Erriko historia azaltzera.

Andres jaunarentzat Unibertsitatea ez da egitarau bat azaltzen dan lekua bakarrik. Beraren funtzioa betetzeari uko egingo dakioko, daukan

iardueraren zati aundia ikaste eta ikertzeari emonda erabilliko ez balu eta, bide onetan, nik aipatutako Mintegia sortzeaz gaiñera, azpimarratu egin bear da Euskalerrriaren Adiskideen Alkarte barruan Ikerkuntza Historikoen Zentrua eta, 1970.etik aurrera, berberak zuzendu izan eban Bizkaiko Ikasketa Aldizkaria ere sortu ebazala.

Guzti onek aurrerantzean iñoiz alde utziko ez dauan Euskal Kulturarekiko ardura adierazpen dau. 1968.etik Euskal Antropologiari buruzko asteen batzorde antolatzailearen buru izango da; eta, betez bere, azpimarratu bearra dago Deustuko Unibertsitatean Bizkaiko Ikaskuntzen Sailla sortzen dala, Aldundiaren babespean, bertoko leen zuzendari berau izan zalarik.

Sail onetan, euskal kulturaren garapenerako laguntzarik garrantzitsuena dan biblioteka sortu zan. Biblioteka onek Andres Jaunaren zuzendari-tzapean 15.000 ale biltzea lortu dau.

Azkenik, Sail eta biblioteka orreek oraingo Eusko Ikaskuntzen Institutua sortzeko oiñarri izan ziran.

VII. Andres jaunak apaiz lez dauan giza-anditasunari aipamena egiñez amaitu nai dot. Legutianoko parroko izan zan (1939) eta eziketa-arduradun Laguardiako Mintegian (1940). Orditik aurrera apaizgoa eta irakaskuntza alkarturik, batera, erabilli izan dauz

Beronek, apaizgoa, bokazio utsez eta euskaldunok geien miresten dogun era, au da, arau-zalekeriarik eta formalkeriarik bage, baiña fedea sakonki biziz eta izaera irekia izan eta eskuak besteen onerako zabalduak dabezalarik betetzen dau.

Mateo Mugica Jaunak, Gasteizko aintziñako apezpiku mirestuak, gudan izandako beraren jokaeragatik atzerritatuak, Euskal Errira itzuli eta bizitzeri Zarautzen kokatu zanean, garai artako aize kome-nigarrietan kulunkatzen ziranen babes-eza jasan bear izan zuen. Orduan, Andres jauna ikustera oso sarri joaten jakona izan zan eta pertsonalki arduratu zan berari laguntzak elerazten, orretarako beraren izaera sentikorra ez mintzeko ezkutuko eginbide biurriak biltzen saiatuz.

Beronek beartsuen alde egiñiko lanen arteati, beraien sarren zatia benefizentzi ekintzetarako uzten daben pertsona multzoa bilduz, urteetan zear isilean lan egin eban "Fraternidad Cristiana" deritzanaren sorketa aipa daiteke.

Seguraski, beraren apaiz-bizitzak nik emen aipatutako gaiñerako guztia itzalpean edo jartzen dau.

Andres jauna: apaiz, unibertsitari, historialari, legelari,... zaren oni benetan **Bizkaiko seme bikaiña zara**. Poztasun andiz alai gaitezke, bada, zu guretarren artean izateagatik eta benetako merezimendua non dagoen baloratzen dakien Aldundia edukitzeagatik.

Txomin Agirre eta Mariano Ibarguengoitia

.....
Zenon Uriguen, Pasiotarra
.....



“Euskal leen gaia gizona”

Aztu eziña da niretzat bein batean irakurritako esaera: “Euskal leen gaia gizona”

Txomin Agirre Badiola da, bete-betean, Euskal gizonaren eredu goragarria.

Txomiñ Agirre Ondarroan jaioa (1864) eta Zumaian zendua (1920). Aita arotza da. Txomin seme ona, ume trebea eta argia da eta egundoko laguntza emoten dautso aitari bere ogibidean. Baña ez daukagu albisterik bere aurtzaroko ikaskuntzari buruz.

Nundik datorkioz, bada, bere bizitzan ain oparo erakusten dituan doaiak eta gaitasunak, baliabide eta aalabide arrigarriak? Lenengo eta bein bere familia. Bai bere garaian Ondarroako familiak ziran txokorik bikaiñena seme alabai eziketa ona emonik, gizon-gintza, ardura aundiz, moldatzeko. Egiaz seme alabak gurasoengandik artzen ez dabena beste inondik be ez dabe artzen. Eta gurasoengandik artzen dabena betiko izaten da. Beraz familia da seme alaben jatorrizko eskola. Bai, “Euskal leen gaia, gizakia” Eusko Jaurlaritzak begiz jo dau gure gizona eta ara emen bere jardunaldi bikaña: “Euskadi prest jarriko dogu “Euskal leen gaia “gizakia” (gizon andre), goraiatzeko. Gurea bezelako jendea ez da edonun aurkitzen. Gizakia da izan be gure lurraren emaitzik onena sendo aritzen dalako, kementsua dalako, aalegintzeko eta arpegia emoteko dauan eragaitk, lanerako dauan gaitasunagaitik”.

Ondarroako gizandi ospetsuak.

Ona emen Ondarroako familietatik sortu diran gizandi ospetsuak lurbira osoan. Txomin Agirre Badiola, idazlari ospetsua eta agurgarria, egizko gizon jatorra, berak idazten dauan lez, “ura zan gizona ura” abade onetsia eta santua.

-XV garren mendean María Santxez de Likona Loiolako San Inazioaren ama, eta Martin Garcia, erregearen kontseilaria, amaren aldetik San Inazioaren aitita

-Agustin Zubikarai, (1914-2004) gizon jakintsua eta euskal idazlari anitza ta ospetsua, aldizkari askotan, sariak eta omenaldi ugariak artutakoa.

-Felix Beristain margolaria (1798-1863) bere arte lanak oso ederrak dira, nazio askotan zabalduak.

-Pedro Maria de Unanue tenor (1814-1846) euskaldun izen aundikoa nazioartean.

-Kirmen Uribe 1970 euskal idazlari eta poeta gorena, Españako saria literaturan

-Angel Aramaio (1971-2011) zine zuzendari. izen aundikoa. Europako ziñe aretoetan

-Ricardo Gatzaga Etxebarria diputatu eta senadorea, gaurko Euskal Jaurlaritzaren ekonomo azkarra.

Txomiñen Jaiotza barria

Txomin Agirre 17 urteko gaztea da. Urduri bizi da. Ez dau etorkizunik ikusten. Zer egin? Bere barne muiñetan ixilean gor-



deta, lotan datza urregorritzko meategi bat. Bai gizakiaren jenialtasun eta espirituaren meategia, urre guztiak baño baliotsuagoa. Baña nork ernarazi eta eraginkor egin altxor bitxi ori? Zorionezko egun batean Mariano Ibaranguoitia abadea Ondarroan dabil gazteen arteko kezka eta etorkizuna argitzen. Eta ara or noiz eta zelan sortzen dan iñoiz pentsabako miraria: Txomin Agirrerren kristau kutsu berezia. Mariano abadearen begia zuur eta argia da Jainkozko giza-doaiak ezagutzeko eta argitzeko. Eta goxo-goxo esaten dautso Txomini: “Zu etorri neugaz” Gurasoekin berba zintzoro egiñik Txomin gaztea Bilbora etorriko da.

Txomin gazteak ezin esan alako irrika bizia sentitzen dau eta zoragarritzko ordu onetan izango da bereztat jaiotza barria, bizitza barria, kristau fedean eta bizibide osoan. Auxe izango da beretzat ordu zoragarria abade on eta jakintsua, eta idazlari ospetsua izateko.

Historia arrigarria.

Bene-benetan oraintxe asten da Txomin gaztearen tzat historia arrigarria. Mariano abade jaunak, maitasunik aundienagaz, ekarten dau Bilbora, bere etxean etxekide, maian maikide, meza santuan serbitzaille, otoitzean otoizlari. Ikastaldiak egiteko jartzen dautsoz irakasle onak eta bera izango da maixu eta zuzendaria. Resurrección Maria Azkuek oroimen gomutagarriak daukoz gai onetan eta ona emen bere testigantza: “Biotza samurturik oroitzen zituen Agirrek Bilbon igaro zituen urte gozoak”. Gañera Mariano abadeak bialdu eban Txomin seminariara, beraren ardurapean eta bere kontura izan ziran ikaskuntza eta abadetza gastuak. Modu miragarri onetan abadetu zan (1888) eta kapellau izendatua bizi guztirako Hermanas de la Caridad Zumaiako ikastetxean. Txomin abade barriaren begi eta biotzean zabalitzen dira muga bako ortzi zelai zabalak.

Zoraldi onetan murgilduta zer egingo dau Txomin jaunak?. Abadetza eginbearrak ondo baño obeto bete, Euskera ondo ikasi, euskal liburuak irakurri, erriaren bizi-gunean jardun, erriaren euskeragaz jantzi, eta Euskal erriaren oitura eta ondaregaz jabetu.

Txomin Agirre beti izango da esker oneko gizona. Mariano abadeari zor dautso bizibide barria eta bere jenialtasuna adierazteko aukera berebizikoa. Mariano abadearen laguntza barik ez genduke ezagutuko Txomin jaunaren bizitza goragarria, ez eta GAROA euskal liburua, nazioarte askotan ezagutua eta benetan aipagarria.

Domingo abadearen babes eta begirapean egingo ditu bere bizitzako egite aintzagarriak, apaizgoan eta gizarte bizibidean.

Txomin Agirrerren idazlanak.

Txomin idazlearen lenengo eleberria “Auñemendiko lorea” dogu (1898) Gai eta giro historikoa da, VII mendean Euskal Errian, Kristau fedea gure artean sartu ostean, sineskeri eta mito zarrak utzirik biziera barria sortzen danean Auñemendiko errietan.

Bigarren eleberria (1906) Kresala izan zan, itxasoaren kutsua dario eta itxas gizon sendo eta bikañen goraberak, itxas arriskuak eta estualdiak egokiro jarririk eleberri au bizkaieraz idatzia agertzen da.


Irugarren eleberria, danen artean ederrena eta ospetsuena, GAROA izango da. (1912)

Eleberri au lenengo argitaratu zan (RIEV, t.1.1907 Guipuzkoeraz eta idazlariaren idazlan ederre, goragarriena, aipatuena izanik. Liburu eder onen idaz-gaia da Euskal erriaren mendi, baserri, uri eta txoko guztietan bizi diran oiturak eta ekanduak bizikiro ezagutzen ditu idazleak eta argi ta garbi, zeatz eta bizi bizi argitaratzen ditu. Auxe da euskal lenengo eleberri klasikoa eta gorengoa. Ortega Gasset idazleak oorezko omenak egiten ditu Txomin eta Garoaren alde.

Txomin Agirre idazlari ugaria eta oparoa da eta bere idazlanak agertzen dira aldizkari askotan: Euskal Erria, Euskalzale, Ibaizabal, Euskal Esnalea, RIEV, Jaungoiko Zale etb. Beti euskera gozo eta ederrean. Euskal akademian bazkide izan zan

EUSKAL LEEN GAIA.

Gaurko egunetan gure gizarteak eta familiak asmo zoli bat artu eta bete bear dau. “Euskal leen gaia gizakia beste gai guztien gañetik” Txomin Agirrerren antzera: Euskal gizonaren gogoa ekintza aundienetara doanean, nork eten bere asmo bideak, eta gure erriaren aldeko ariketak? Zorioneko egitaraua: Euskal gizakia, leen gaia eta beraren bidez aberriaren bikaintasun ezin ohea. Gora Txomin Agirre “Euskal leen gaia gizakiaren” eredu ta jarraibide bikaña.



Loteri kontuak

- 1.- Bi milla ta amabosgarrenan sartu giñan abenduan, ogeita bigarren eguna ere noizbait iritsi genduan. Loteri ori geienak gendun burutik ezin kenduan; diruzko jainko orren mendera bizi bai gera munduan.
- 2.- Nola telebistaz ala irratiz loterian albistea, gure zenbakirik ezin entzuna ez al zan gauza trsitea? Naiz urteroko kontua izan zailla degu sinistea: loteri ori guretzat dala ipuia edo txistea.
- 3.- Banaka batzuk badiradela ortatik aberastuak, joan zan urteko ainbat zenbaki ez dauzkagu aztuak. Aiek oroitz txarteletara luza genitun eskuak; uste geienak ustel ordea anai-arreba prestuak.
- 4.- Aurrez niona banaka batzuk aberastuak dirade, geientsuenak gertatzen gera olako erarik gabe. Gure barruko alaigarritzaz esango degu au ere: "Bota genduna etortzen bada konpormatuko gerade".
- 5.- Aberasteko irri ori du loteri zale dagonak, beraren bidez iritsi naia diruaren zorionak. Erregenetan izaten dira berriro ezin egonak; sarri Eguberritako martxa jokaturako txanponak.
- 6.- Eguberriz baiño suerte obez datoztela Erregeak, edo antzeko arrazoi pranko ez gera entzun gabeak. Da azkenean eskari auxe egiñez diru zaleak: "Osasuna eman oi deigula zeru ta lurren Jabeak".
- 7.- Almeri ortan erori ziran mokadurikan aundiñak, gurean ere an eta emen izan dira zapriztiñak. Zorionerako izan bitez loterian eragiñak; gaiñontzekoan zakelak dabiltz len ziran bezin ariñak.
- 8.- Etekin berdiña ez dute beti mundu ontako ekintzak, nundikan nora joan bear dun pentsatu bear bakoitzak. Neurri batean errenditzeko komeni dira baldintzak; itxaropenik ez baldin bada ez du balio bizitzak.

9.- Loteri ori jokutzen gabiltz
ez dakit zemat uretan,
milloika jendez banaka batzuk
egokituz suertean.
Guk nai genduken zorion ori
naiz gertatu apartean;
itxaropenaz bat bizitzen da
eguna etorri artean.

10.- Ekintza geienak komeni dira
neurria jarriz gidari,
da uste ez dan Amabirjiña
agertu leike nunnari.
Emen dirurik ez da erretzen
aldaketa da nabari;
jendea pranko ere bizi da
eskerrak loteriari.

11.- Gizarte onek berekin ditu
ainbat itxu ta ezindu,
oietako askok bizitzan zama
loteri saltzen arindu.
Badakite zer egin bear duten
da zertarako agindu?
saltzen dutena erosten dunak
obra eder bat egin du.

12.- Asko jarraitu bearko degu
orain artean bezela,
pentsa bizitza okerragoan
milloika badabiltzela.
Jauna eskertuz guztiak maite
gu zer gerade bestela?
Da aberastu diranak berriz
ondo bizi ditezela.

Irakurle, URTE BERRI ON

Txomin Garmendia



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (IX)

IIn Blanka Nafarroako Erregiña.

1.424an Bagillaren 9an Oliten jaio zan Trastamara eta Ebreux'tar IIn Blanka.

Nafarroako erregiñaren I Blanka eta bere senar Aragoiko IIn Juan, orduan Peñafieleko Dukea zanaren ezkontzako bigarren alaba izan zan IIn Blanka, eta irugarrena I Blanka amak euki zituzen lau seme/alabetatik.

IIn Blanka erregiñaren bizi kondaira laburra.

1.436ko Azaroaren 22an Majanoko onguneagaz 6 urteko guda amaituta, Toledon sinatu eben bakea Gaztela ta Nafarroako erregeak.

12 urte ebazan Nafarroako IIn Blankak orduan, eta Gaztelan gero IVn Enrike izango zanarekin gurasoakaz elkar adituta euren seme/alaba oneik ezkontzeko, Nafar erregeak gudan galdu zituzen gaztelu ta uriak berrezkuratu ebazan.

1.440an Iraillaren 16an Nafarroako erregiña I Blankak, bere alaba IIn Blankari 15 urte zituzela lagundu eutson Balladolizera, Gaztelako



IVn Enrikerekin ezkondu zedin, eta 1.441eko Epaillaren 31n ezkondu ziran.

1.441ean Jorraillaren 1ean, IIn Blanka bere alaba ezkontutako urrengo egunean il zan I Blanka Nafarroako erregiña, IIn Juan bere gizona Gaztelako lurraldetatik euki ebazan eztabaidak bakezten egoala.

1.453an Loraillaren 2an, Nafarroan IVn Karlos eta bere aita IIn Juanen artean anai arteko guda sortzen zan birtartean, IIn Blankak ezkontza barragarri bat eroan eban Gaztelako IVn Enrikegaz, onen esanetan: kaltegarritzko



eragipenagaitik⁽¹⁾ edo itzalkeriaren indarragaitik, bien artean ez zala egon arremezko artu-emonik, berak bere emazteagaz barrendu-ezin⁽²⁾ ebalako. Egia baiña, bere antxu⁽³⁾ edo algabetasunagaitik izan zan⁽⁴⁾ antza.

1.455eko urtean II In Blanka bere neba IV n Karlosekin batera, euren aita II n Juaneri, Nafar erregetzan euki ebazan errege/erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezan, eta onek, ondorebage biak itxita, irugarren alaba 30 urteko Leonorren eskuetan itxi eban ondorego ori. Ekintza one-gaz, Nafarroako beste anai-guda barri bat sortuta.

1.461ean Iraillaren 23an IV n Karlosek il orduko, beren azken naiak idatzi ebazan bere aizta nagusia orduan II n Blanka zanaren alde, 1.439an Otsaillaren 17an bere ama I Blankak idatzi eban baldintza bardiñekaz, Nafar erregetza ondoren-

go seme-alaba nagusien izatasunetik iraun egien beti lez.

1.462ko urtean II n Blanka baka-rrik eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, II n Juanek Frantziko XI n Luisekin Agurainen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, II n Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XI n Luis'en 16 urteko Karlos seme txikerra Berri'ko Dukea izan zanagaz ezkondu edin, eta II n Blankak ezetza emon eban lez, bere aita asarre, alaba txikerra Leonor eta Foixeko IV n Gazton bere suiñen agindupeko Monkadako dorrean atxilotzea erabagitzen dau.

1.462an Jorraillaren 12an II n Juanek Oliten, bere alaba Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargoan, Leonor itzi eban bere ondorengo lez.

Eta orretarako II n Blanka benetako erregiñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez gauza orreik, bereala asi ziran azpikeriz bere ilketa antolatzen, II n Juanek bere suin Gaston eta alaba Leonorren zainpean osteratxilotu egien aginduta.

1.462an Jorrailla'ren 23an II n Juanek aginduta, Mosen Pierres Peraltakoak II n Blanka mendi osteratxilotuta eroan ebenean eta Orreagako lekaretxean egon ziran, Blankak, idatzitako aldarrikapen bat egin eban: "Beren Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian bere aizta Leonor eta Fernando bere ugaz-nebaren mesede, bere borondatearen aurka eroaten ebalatzen ebaten lekura".

"Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itzi dagiezala beren

(1) Kaltegarritzko eragipenagaitik = *influencias malignas*. (2) Itzalkeriaren indarragaitik = *por la fuerza de la mala influencia*. (3) Antxu = *esteril, agenesiko*. (4) algabetasun edo ezintasuna = *impotencia, falta de potencia*.

salaketa orreik, olango zeozer egi-terakoan, bere borondatea, Gaztelako errege IVn Enrike bere lenengo senarra zanaren zainpean iztea zalako euki ebazan eskubideak”.

1.462an Jorraillaren 30ean II In Blankak Saint-Jean-Pied-de-Port´en idatzi eban azkenai ori, len bere senarra izan zan Gaztelako IVn Enrikeren alde.

1.462an Jorraillaren 30ean II In Juan bere aita asarre, alaba txikerra ta II In Blankaren aizta zana Leonor eta onen senar Foixeko IVn Gastonen gazteluan Monkadako dorrean atxilotzea erabagitzen dau.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan beste seme/alaba IVn Karlos eta II In Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an il zan II In Blanka bere aizta Leonorrek pozoituta Frantziaren Orthez´eko urian Monkadako dorrean II In Juanen aginduz.

Leskarreko Eleiz Nagusian obiratu eben.



Foix´eko I Leonor Nafarroako Erregiña.

1.425eko Dagonillaren 22an Nafarroako III In Karlos erregearen Juana, alaba nagusia il zan, eta Iraillako 8an III In Karlos bera.

Gertakizun oneik I Blanka kokatzen eben ondorengo lez, eta Nafarroako erregiña koroatu eben, bere senar Aragoiko II In Juan, ezkon-lagun lez errege koroatuta.

1.426an Otsaillaren 2an Oliten jaio zan Ebreux eta Trastamaratar Leonor, Nafarroako I Blanka eta Aragoiko II In Juanek euki zituzen lau seme/alabetatik, alaba txikerrena izan zana.

Eta bere anditasunezko izenaren artean, 1.426-1.479 urte bitartean Nafarroa ta Aragoiko errege/erregiñaren alaba, 1.462/1.472 urte bitartean ezkontza bidez Foix´eko Kondea, 1.462/1.479 urte bitartean Jaurlari lez, eta Nafarroako erregiña lez 1.479ko Urtarrillaren 28tik Otsaillaren 12rarte.

Leonor, bere aita Aragoi ta Nafarroako II In Juanen alaba kuttuna izan zan, II In Juanek bere maltzurrekeriak beste seme /alabaren aurka eroateko, panpiña bat lez ibili ebalako.

1.427an Dagonillaren 9an lortu eben II In Juanek, Leonor Nafarroako errege/erregiñaren zerrendan, IVn Karlos Bianako Printzea eta II In Blanka neba/arrebaren ostetik ezartzea.

1.434ko urtean I Blanka eta II In Juanek, Foixeko IVn Gazton Kondearekin itzarmendu ziran euren alaba Leonor txikerrenagaz ezkondu zedin.

1.436an Uztaillaren 31an onetsi eben ostera I Blanka eta II In Juanek itun ori, Leonorrek Aragoi aldetik 50.000 florin ezkon-sari lez artuta, Miranda, Larraga eta Falzes´eko Uriaren kontura.

1.442ko urtean, I Blanka ama il eta gero ezkondu ziran eleizatik Leonor eta Bearn´eko IVn Gazton. Leonor bere senarrakin ortik aurrera, Bearn´era bizitzen aldatuta.

1.455eko urtean II In Juanek, bere seme IVn Karlos eta II In Blanka alabea Nafarroa eta Aragoiko erregetzari buruz, ondorengogabetasunean itzi ebazanean, Leonor 30 urte euki zituzela, bere aita II In Juanen panpiña izatera aldatu zan, onek bere beste seme alabaren aurka egiteko, itxura orreitan ibili ebalako.

II In Juanek, erregearen ondorengo lez, Leonor eta bere senar IVn Gazton izendatu ebazan.



Gauza oneik Nafartarren anai arteko borroka gogorrak sortu ebezan, erreñuko jaurkintza oso latz biurtuta, eta eskerrak Martin eta Peraltako Pierres agramontesei, auek izan ziralako Nafarroako jaurkintza zuzendu ebenak.

1.462an Jorraillaren 12an Oliten II In Juanek, Leonor bere alaba eta bere suin IV In Gazton kondeagaz, alkarpide bat egin eben, eta bertan siñatu, zelan II In Juan Nafarroako errege lez onartuta, berak bere aldetik onartzen ebala bere alaba Leonor, Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

Ongune onek eskatzen ebena: 1.461eko Irailaren 23an IV In Karlos Bianako Printzea bere ugazama Juanak pozoituta il ebenetik, Leonorren aizta II In Blanka ikusmenetik kentzea, eta lazter antolatuko eben onen pozoitasuna, Berarn'en Foix konderriko gazteluaren Monkada dorrean 1.464ko Abenduaren 2an egin

ebena.

Ekintza orren ostean Leonorrek, Nafarroako erregetzaren ordezkotza bere ize-nean lortu eban.

1.465eko urte onetan Leonorrek, gudako eten bat siñatu eban beamontesarekin, eta bere jauntzazko izenetan eroaten ebazan izenburuak: Nafarroako erregetzaren ondorengo leen printzea, Aragoi eta Siziliako erregearen alaba, Foix ta Bigorrako Kondea, Bearneko Andrea, eta bere aita II In Juan Nafarroko erregearen, orokorrezko ordezkoa izatea, izan zian.

Aita II In Juan eta alaba Leonor biak lapurrak zirala ta, batak edo besteak aukerea bakarrik lortu bear Nafarroako erregetzagaz geratzeko, eta 1.462ko Jorraillan Oliten Leonorrek ez ba eben siñatu II In Juan errege izateko ongunea, Leonor bera izango zan Nafarroako erregiña, eta ez ziran piztuko, Leonor beamontesarekaz lagun eta II In Juan agramontesarekin piztu ziran borrokak Nafarroako erregetzagaitk.

1.467ko urtean Leonor bere beaumont'ar kondestablearen alegiñ bidez, geldiene bat egin eban II In Juanen agramontesekin.

1.468ko urtean II In Juanek, Leonorren lenengo aolkulari eta Iruñako gotzaiña Txabarritar Nikolas il eban, gero Leonor bera, beren erregetzaren orokorrezko ordezkotzatik kenduta eta ardura ori Leonorren seme Gaztonen eskuetan itzi ondoren, eztabaida orren nasketak azken muturraren mugaraiño elduko ziran.

1.471n II In Juanek osterita itzuli bear eutsoezan Leonorreri bere ordezkotza ardurak betirako, naita, II In Juanek Leonorreri ipini eutsozan Aragoiko eskubideetatik alde egiteko baldintzak, balio aundirik euki ez, borrokarren gogortasunak txikiagotzeko.

1.472an Uztaillaren 10ean il zan Leonorren senarra Foixeko Gazton Kondea, Bearneko gualozteakaz bere emazteari laguntzen joan zanean.

Nafartarrentzat aldikada oso txarra izan zan egoera au, Frantzia, Aragoi eta Gaztelatarrak itxaroten egon ziralako, euren musturrak Nafartar erreñuan sartzeko.

1.472an Dagonillaren 2an saldukeri ta judaskeriak geiegian egon ziran lez, beaumontes kondestable Trebiñoko Laratar Manrike kondea, Gipuzkoako oñazekoa-kaz alkartu ondoren, Nafarroaren mugetako, Lekunberri, Leiza ta Gorritiko gazteluak ezereztu ebazan.

Eta Leonor eskubideko erregiña eta Nafar erreñu osoaren ordezkotzako jaurkintzaren aginduan egoala, Leringo Kondeak, agiri gogor bat atara eban, San Juanen lekaidetxeko jauna eta Luxako Juan beaumontarrak, eriotzera eta ondasunaren baiturara zigortzen ebana, ortik aurrera eta azkenerarte beaumont´tarrak Fernando katolikuaren aldera aldatuta.

Ariñautik be, Nafarroako erregeak askatasunezkoak izan ba ziran be, saman beaumont´tarren lepokoa eroaten eban, Fernando katolikuak ondo baiño obeto erabilten ebana.

Nafarroako erregeak beste aldetik, Frantzian laterritasunezko jabetasunak euki ebalako, Frantziako erregearen agindutara egon bear ziran. Eta geiago, oneik etenbako auzian ibilten ziranean Foixeko leiñuaren ondorengotasunagaitik.

Nafarroako erregetza orregaitik, Frantzia, Gaztela ta Aragoiaren arteko oreka larrian bizi izan bear izan eban beti, nafar erregetzaren eriotzea, oreka orreik apurtzen ziranean sortuta. Eta Fernando katolikuak, Aita Santu IIIIn Pio, IIIn Julio, Xn Leon, VIIn Adriano, eta VIIIn Klemente maltzurkerizko gauza



orreitan paregabeko maisuak izan ziran lez, 1.512an sortu zan, danak ariñautik jakin ebena sortuko zala.

1.479an Urtarrillaren 19an il zan IIIn Juan 82 urte beteteko euki zituzela.

Eta 1.479an Urtarrillaren 28an Leonor erregiña lez izendatuta, Tudelan egoala Otsaillaren 12an il zan, 15 egun erregiña lez bakarrik bete ondoren.

Eta ilteko egon zala, bere neba IVn Karlosek euki ebazan eskubide guztiak eskatu ebazan bere semearentzat, bere ama I Blankak agindu eban lez.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.015'eko urtean Epaila'ren 17'an

EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzar Nagusia

Jorraillaren 7an egunean
EUSKERAZALEAK
alkarteak urteroko
Batzar Nagusia egingo dau
Lenengo deia: 18:30ean eta
Bigarren deia 19:00etan

GAIAK

Aurkezpena: Zuzendariak
Aurreko Batzar Nagusia Akta: Pablo Atutxa
Urteko kontuak: Diruzaiñak
Urteko ekintzak: Zuzendariak
Batzordekide barriak, balegoz
Erreagoak eta eskariak

ZUZENDARIAK

Asamblea General Anual

El 7 de Abril celebrará
la Asociación
EUSKERAZALEAK
su Asamblea General anual
Primera convocatoria 18:30 tarde
Segunda convocatoria 19:00 tarde

ORDEN DEL DÍA

Presentación: El Presidente
Lectura del acta del año anterior: Pablo Atutxa
Cuentas anuales: La Tesorera
Actividades anuales: El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si los hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kалан (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



**Arbasoen arkaitza
Nafarroa, Nafarroa,
Nafarroa,
arbasoen arkaitza,
lur emankor ezkaitza
bedatxeko ekaitza
ekiaren emaitza
Nafarroa, Nafarroa,
arbasoen arkaitza.**

**Zazpietan leena
Nafarroa, Nafarroa,
Nafarroa,
zazpietan leena
gaztelien auena
Santxoren asperena
gazteen itxaropena
Nafarroa, Nafarroa
zazpietan leena.**